

7/1998 DEKRETUA, urtarrilaren 27koa, Euskal Herriko Polizi Kidegoetako Funtzionarioak bigarren jarduerako administrazio-egoerara igarotzeko buruzko zenbait gai garatzen dituena. (Hutsen zuzenketa, EHAA 34 ZK., 1998/02/19) (Hutsen zuzenketa, EHAA 37 ZK., 1998/02/24) (Hutsen zuzenketa, EHAA 42 ZK., 1998/03/03)

Euskal Herriko Polizi Kidegoei legez atxikitu zaizkien zereginak direla-eta kide horietakoek ekin-tza askotan hartu behar izaten dute parte, eta, sarritan, zeregin horiek arriskutsuak eta zailtasun handikoak izaten dira. Hortaz, funtzionarioek egoera fisiko eta psikiko onean egon behar dute; baina lana ondo betetzeko hori horrela izan behar bada ere, ahalmenak gutxitzen doaz adinak aurrera egin ahala, edo zenbait egoeraren ondorioz. Gauzak horrela, askotan funtzionarioak ezin izaten ditu bere mailari dagozkion zereginak oso-osorik bete, edo funtzionarioa ez da gauza izaten polizi eginkizunak eraginkortasunez betetzeko.

Euskal Herriko Poliziari buruzko Legeak (4/1992 zenbakidunak, uztailaren 17koak) izan du gai hori kontuan, eta lege horretan badago zehaztuta bigarren jarduerako administrazio-egoera. Horren bidez, egoera horretara igarotzeko arrazoiak bi izan daitezkeela zehaztu zen: bata, Eusko Legebiltzarrak legez kategoria bakoitzerako zehaztutako adina izatea; bestea, 85 b) eta 87.1. ataletan zehaztutako ezaugarriak betetzen dituen gutxiegitasun fisiko edo psikikoa izatea. Gutxiegitasun horiek antzeman ondoren, gutxiegitasun horiek egon daudela aitortzeko beharrezkoa da administrazio jardunbide bat tramitatzea, eta jardunbide horretako tresna nagusiak bi dira: Mediku Epaimahaia (87.2. atalean dago zehaztuta hori) eta 2. jarduerako egoerara igarotzera behartzen duten ezintasunen taula (taula hori, legean zehaztutakoari jarraituz, Eusko Jaurlaritzaren araudi bidez zehaztuko da) (87.4. atala).

Eusko Legebiltzarrak ez du oraindik legerik eman 2. jarduerara igarotzeko kategoria bakoitzeko adina zehazteko, baina, bestalde, komenigarria litzateke, gerorako utzi gabe, honakoak zehaztea: lehenengo, ahalmen fisiko edo/eta psikikoen gutxiespena edo gutxiegitasunaren ondorioz bigarren jarduerako administrazio-egoerara igarotzea beharrezko dela adierazteko beharrezko administrazio jardunbidea; bigarren, adierazpen hori egiteko oinarri izango den ezintasunen taula, baina horretarako lehendabizi zehaztu egin beharko dira polizien oinarrizko zereginak zeintzuk diren, eta zeintzuk diren zeregin horiek eraginkorrak izateko beharrezko diren gutxieneko ahalmenak; hirugarren, gutxiegitasuna aztertu eta egoera horretara igarotzea erabakiko duen Mediku Epaimahaia nortzuk osatuko duten eta nola jardungo duten.

Uztailaren 17ko Euskal Herriko Poliziari buruzko 4/1992 Legeko azken xedapenetatik bigarrenean Jaurlaritzari emandako aginpideari jarraituz, bidezkoa da dekretu horren bidez gutxiegitasuna dela-eta bigarren jarduerako egoerara igarotzeko egin beharreko adierazpenaren jardunbidea zehaztea, polizien oinarrizko zereginen kontzeptua zehaztea, baita gutxiegitasuna aztertu eta egoera horretara igarotzea erabakiko duen Mediku Epaimahaia nortzuk osatuko duten eta nola jardungo duten zehaztea ere.

Aipatutakoari jarraituz, Herrizaingo sailburuak proposatu ondoren, Euskal Herriko Toki-mailako Poliziak Koordinatzeko Batzordeak eta Ertzaintza Kontseiluak egindako txostenak kontuan hartuta, Estatu Kontseiluarekin bat etorritz eta aurretiaz Gobernu Kontseiluak 1998ko urtarrilaren 27an egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, honako dekretu hau eman dut.

XEDATU DUT:

I. ATALBURUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. atala.– Helburua.

Dekretu honen helburua honakoa da: kategoriari dagozkion zereginak eraginkortasunez betetzeko gutxiegitasun fisiko edo psikiko agerikoa, eta ustez iraunkorra, duten Euskal Herriko Polizi Kidegoetako funtzionarioak bigarren jarduerara igarotzea arautzea, Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 85 b) atalean ezarritakoa betez.

2. atala.– Bigarren jarduerako egoerara igarotzea, uztailaren 17ko 4/1992 Legeko 85.b) atalean zehaztutako zio baten ondorioz.

1.– Beren zereginak egiteko beharrezko ahalmen fisiko edo psikikoen gutxitze agerikoa duten funtzionarioak bigarren jarduerako egoerara igaroko dira, bai arauzko adina bete aurretik (uztailaren 17ko 4/1992 Legeko 85. atala), baita adina beterik, jarduneko zerbitzuko egoeran jarraitzeko luzapena lortu badute ere; ageriko gutxitze horrek, polizi lanbidearen oinarrizko egitekoak eraginkortasunez burutzea galarazi gabe, bere kategoriako berezko zereginak osorik gauzatzeko ahalmenaren urritze iraunkorra ekarri beharko du berarekin. Atal honetan azaldu bezala, bigarren jarduerako egoerara igarotzea funtzionarioa jarduneko zerbitzuan ari denean bakarrik gerta daiteke (uztailaren 17ko 4/1992 Legeko 87.1. atala).

Ertzaintzaren Fakultatibo eta Teknikarien Eskalako funtzionarioak ezin izango dira bigarren jarduerako egoerara igaro; hori bat dator uztailaren 17ko 4/1992 Legeko 85. atalarekin.

2.– Dekretu honen ondorioetarako, honako hauek dira polizi lanbideko oinarrizko zereginak: herritarren ordena eta segurtasuna zaintzea eta berrezartzea; ekintza deliktiboei aurre egitea, horiek ikertzea eta errudunak jazartzea. Zeregin horiek eraginkortasunez betetzeko beharrezkoa da gutxieneko ahalmena izatea su-armak eta gainontzeko arauzko babes-tresnak erabiltzeko, baldintza normaletan ibilgailuak gidatzeko, baita mugitzeko gutxieneko gaitasuna izatea ere.

3.– Bigarren jarduerako egoerara igarotzeko adierazpena Ertzaintzan giza baliabide gaietan eskumena duen zuzendaritzaren edo dagokion toki-erakundeko organo eskudunaren ebazpen bidez egingo da; ebazpena eman aurretik, mediku-epaimahaiak irizpena emango du, dekretu honetan araututako prozedurari jarraituz, eskura dituen agiriak aztertuta, eta helburu horretarako premiazkoak diren probak eta azterketak edo miaketak egin ondoren.

3. atala.– Bigarren jarduerako egoerara igarotzera behartzen duten ezintasunen taula.

1.– Bigarren jarduerako egoerara igarotzera behartzen duten ezintasunen taula, hain zuzen, Euskal Herriko Polizi Kidegoetako kategoria bakoitzari dagokiona, dekretu honetako I. eranskinan dago zehaztuta (taula hori Euskal Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legeko 87.5. atalean aipatutakoa da).

2.– Mediku Epaimahaiak gaixotasuna, sindromea, prozesu patologiko fisiko edo psikikoa edo urritasun anatomiko-funtzionala antzeman edo aztertzerakoan (horiek guztiak aipatutako taulan daude bilduta) kontuan izan beharko ditu kategoriari dagozkion zereginak betetzeko funtzionario horrek izan behar dituen osasun-baldintzak eta lan-baldintzak ere. Kategoria bakoitzari dagozkion

zereginak Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legeko 106. atalean daude zehaztuta.

4. artikulua.– Udaltzaingoaren kidegoetan bigarren jarduerako egoerara igaroarazteak dituen ondorioak.

1.– Bigarren jarduerako egoerara igaroarazitako funtzionarioei euren lanpostuarekin zuten lotura etengo zaie, dagokien lanpostua 2. jarduerako egoeran dagoen langileak betetzeko modukoa denean izan ezik.

2.– Bigarren jarduerako egoerara igaroarazitako funtzionarioak dagokion toki-erakundeko organo aginpidedunaren esku geratuko dira, eta ohiko polizia-zereginak burutu beharko dituzte zerbitzu-arrazoiek hala eskatzen dutenean eta arrazoi horiek dirauten bitartean.

3.– Halaber, bigarren jarduerako egoeran dauden langileek egiteko moduko zereginak dituzten lanpostuak bete ditzakete, beti ere, Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legeko III. idazpuruko II. atalburuan eta lege hori garatzen duten arauetan zehaztutakoari jarraituz.

4.– Bigarren jarduerako egoeran dauden bitartean, funtzionarioei Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legean, eta lege hori garatzen duten arauetan, erregimen estatutarioari buruz zehaztutako arauak ezarriko zaizkie, hala dagokien neurrian.

4.bis artikulua.– Ertzaintzaren kidegoetan bigarren jarduerako egoerara igaroarazteak dituen ondorioak.

1.– Bigarren jarduerako egoerara igarotako Ertzaintzako funtzionarioei jarduneko zerbitzuko egoeran esleituta zuten lanpostuarekiko lotura etengo zaie, lanpostua 2. jarduerako egoeran dagoen langileak betetzeko modukoa denean izan ezik, eta lanpostu-zerrendan bigarren jarduerako kalifikazioa duen beste lanpostu bat esleituko zaie behin-behinean, zerbitzua ematen ari diren unitatean.

Baldin eta hor ez balego lanpostu hutsik, interesdunak proposatutako hiru lanposturen artetik, polizia-gaietan eskumena duen sailak agintzen duen lantokira atxikiko da funtzionarioa, lanpostu hutsik badago.

Behin-behineko esleipena ezingo balitz aurreko idatzi-zatian xedatutakoaren arabera gauzatu, polizia-gaietan eskumena duen sailak funtzionarioaren gaitasunetara egokituko du lanpostua eginkizunei dagokienez, betiere mediku-epaimahaiaren irizpenari jarraituz eta eginkizunen katalogoaren arabera.

Ertzaintzako funtzionarioa, esleitzen zaion lanpostura edo lanpostua funtzionalki egokitu ondoren esleitzen zaizkion eginkizunetara guztiz egokitzeko, lanpostu horretan aritzeko egoki den berariazko prestakuntza jasotzeko aukera emango zaio, betiere lanpostuan aritzeko eskatzen diren gainerako oinarrizko prestakuntza-eskakizunak betetzen baditu.

Eraginkortasun-arrazoiak direla-eta ezin denean lanpostu berean jarraitu, beste lanpostu bateara atxiki ahalko da aipatutako irizpideen arabera, egokitzapen funtzional berdinarekin.

2.– Bigarren jarduerako administrazio-egoeran dauden funtzionarioek ezingo dute, inolaz ere, salbuetsita daudeneko polizia-zeregin edo –eginkizunak bete, bigarren jarduera onartu zitzaioneko ebazpenaren eranskinean ezarritakoaren arabera; hondamendi– edota larrialdiegiak salbuespen izango dira.

3.– Bigarren jardueran egoteak berekin dakar honako kontzeptu hauengatik kobratzea: oinarriko ordainsaria, lanpostu-mailako osagarria eta bere lan-kategoriako berariazko osagarria eta norberari aitortutako osagarriak, hirutekoak barne; hirutekoak osatzen jarraituko da egoera horretan.

Halaber, egoera horretara igarotzeko erabakigarriak izan ziren ezintasun funtzionalen ondorioz esleitzen zaizkien eginkizun eta betebeharren arabera esleitzen zaien berariazko osagarri berezia kobratuko dute; osagarri hori ez da inoiz ere hiritarren segurtasuneko agente-kategoriarako ezarritakoa baino txikiagoa izango.

5. atala.– Bereizgarriak eta armak.

Bigarren jarduerara igaroarazitako funtzionarioak lanposturen batean jarraitzen badu, arauzko arma eduki eta erabili ahal izango du.

6. artikulua.– Jarduneko zerbitzuko egoerara itzultzea.

1.– Bigarren jarduerako egoera ezintasun fisiko edo psikikoarengatik eman bazen, egoera horretatik jarduneko zerbitzuko egoerara itzultzeko beharrezko izango da funtzionarioa zeharo sendatu dela ziurtatzea, modu frogagarrian; horretarako, mediku-epaimahaiak aldeko irizpena eman beharko du, dekretu honetako 18. artikuluan zehaztutako prozedurari jarraituz.

2.– Ertzaintzako funtzionarioen kasuan, dagokion ertzainak hobera egin duela-eta medikuepaimahaiak bigarren jarduerako administrazio-egoerara igarotzeko arrazoiak desagertu direla irizten badio, administrazio-egoera hori baliogabetu egingo da, eta, bidezkoa bada, horretarako ematen den ebazpenean funtzionarioa jarduneko zerbitzura itzultzea ebatziko da. Kasu horretan, aurreko egoera baliogabetu eta hurrengo hilabetean itzuliko da jarduneko zerbitzura.

Jarduneko zerbitzuko egoerara itzultzeko, lanpostuak betetzeko deialdietan parte hartu beharko da, lekualdatze-lehiaketa edo izendapen askeko sistemen bidez. Jardunera itzuli ahalko da, halaber, bigarren jarduerako administrazio-egoeran destinoa zuen unitateko lanpostu batera behin-behinean atxikita.

II. ATALBURUA

BIGARREN JARDUERAKO EGOERARA IGAROTZEKO JARDUNBIDEA

LEHENENGO SEKZIOA

JARDUNBIDEAREN XEDAPEN KOMUNAK

7. atala.– Mediku Epaimahaia izendatzea eta osatzea.

1.– Mediku Epaimahaiko kideak hiru sendagile izango dira, eta horietako bat sindikatuen ordezkariak proposatutakoa izango da. Epaimahaikideak Herrizaingo Sailak edo hala dagokion toki-erakundeko eskudun organoak izendatuko ditu.

Era berean, ordezeko sendagileak ere izendatuko dira; horiek ordezekoak egingo dituzte titularra ez dagoenean, gaixorik dagoenean edo titularraren postua bete gabe geratzen denean.

Herrizaingo sailburuak Ertzaintza Kontseiluko funtzionarioen ordezkariari epaimahaikideak proposatzeko eskatuko die eta, era berean, hala dagokion toki-erakundeko eskudun organoak toki-erakundeetako talde ordezkariari gauza bera eskatuko die. Proposamena egiteko hilabeteko

epea izango dute, eta epe horretan ez badute proposamenik egiten, Ertzaintzan edo hala dagoen toki-erakundean ordezkari gehien dituen sindikatuak proposamena egingo du eta Herrizaingo sailburuak edo hala dagokion toki-erakundeko eskudun organoak sendagilea izendatuko du.

2.– Epaimahaikideek sendagile espezialisten partaidetza eska dezakete eta kasua argitzeko medikuntza arloko behar adina proba eta azterlan egitea erabaki dezakete. Horren helburua, beti ere, zereginak ahalik eta ondoen betetzea izango da. Zeregin horretan parte hartzen duten espezialistek ez dute inolaz ere botoa emateko eskubiderik izango.

3.– Epaimahaikoek idazkaria izango dute lana errazteko, eta idazkari horrek hitz egiteko esku-bidea izango duen arren, ez du botoa emateko eskubiderik izango. Idazkaria epaimahaia izendatu duen organoak berak izendatuko du, eta organo horrek hala dagokion herri-administrazioan lan hori egiteko prestakuntza aproposa duten funtzionarioen artean aukeratuko du idazkari izango dena.

Idazkariaren zereginak Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Jardunbide Komunari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 25.3. atalean daude zehaztuta. Era berean, Mediku Epaimahaiak zereginak eraginkortasunez bete ditzan beharrezko diren agiri guztiak bildu beharko ditu kasuan-kasuko eskudun organoan.

8. atala.– Epaimahaiaren jarduerak.

1.– Epaimahaiak bilera arrunta egingo du hilean behin, baldin eta argitu beharreko espedienteren bat badago. Presidenteak hala eskatzen duenean premiazko edo/eta ohiko bilera egin dezakete.

2.– Lehenengo deialdian presidenteak, idazkariak eta, gutxienez, epaimahaiko beste sendagile batek egon behar dute –sendagile hori bai titularra bai ordezkoa izan daiteke–; bestela epaimahaia ez da behar bezala osatuta egongo eta ezin izango da bilerarik ez eztabaidarik egin, eta ezin izango da erabakirik hartu.

Lehenengo deialdian ez badira epaimahaia osatzeko baldintzak betetzen, beste deialdi bat egingo da, eta bigarren deialdiko bilera egiteko zazpi eguneko epea izango da, lehenengo deialdiak huts egin zuen egunetik kontatzen hasita. Bigarren deialdiko bilerak balioa izan dezan nahikoa da goiko parrafoan aipatutako kideetako bi bertaratzea.

3.– Epaimahaiak Herri Administrazioen Araubidearen eta Guztientzako Administrazio Ihardunbidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko II. idazpuruko II. idazatian zehaztutakoa bete beharko du.

9. atala.– Jardunbidearen hasiera.

Dekretu honetan zehaztutako arrazioen ondorioz 2. jarduerako egoerara igaro behar izanez gero, horretarako jarraitu beharreko jardunbidea ofizioz edo interesatuak hala eskatuta has daiteke.

10. atala.– Isilpeko informazioa.

Osasunari buruzko txostenak isilpekoak dira, eta, hortaz, espedientea tramitatzen ari diren funtzionarioek eta gainontzeko langileek isilpean gorde beharko dute interesatuaren osasunari buruzko informazioa, hain zuzen ere, tramitazio horren ondorioz lortzen duten informazioa. Era berean, isilpean gorde beharko dute interesatua Mediku Epaimahaiarengana joan beharra, bai eta hori eragin duten arrazoiak ere.

11. atala.– Medikuen azterketa.

1.– Behin espedientea irekiz gero, espediente hori, idazkariaren bidez, Mediku Epaimahaiari emango zaio. Espedientearekin batera txosten eta agiri guztiak emango zaizkio.

2.– Mediku Epaimahaiak interesatuari dei egingo dio azterketa bat egiteko; interesatuak bertartzeko eta azterketa egiteko betebeharra du.

3.– Funtzionarioak, osasun-egoera dela eta, ezin badu Mediku Epaimahaiaren azterketara joan –egoera hori egiaztatzeko bere medikuaren agiri ofiziala aurkeztu beharko du–, orduan, epaimahaiak azterketa funtzionarioaren etxean edo funtzionarioa ospitaleratuta dagoen osasun-zentroan bertan egiteko beharrezko den guztia presta dezake.

4.– Funtzionarioa ez bada medikuaren azterketara bertaratzen eta horretarako arrazoiak ez baditu behar bezala egiaztatzen, epaimahaiak beste dei bat egingo dio –epaimahaiak bi dei baino ezin izango ditu egin–. Orduan ere ez bada bertaratzen edo ez agertzeko arrazoiak ez bada behar bezala egiaztatzen, Mediku Epaimahaiak erabakia eman dezake espedienteko agiriak nahikoa direla uste badu; bestalde funtzionarioaren jarreraren berri emango dio eskudun organoari, horrek funtzionarioak disziplinaren arloan ustez egindako hutsak argi ditzan.

Espedientea interesatuak berak eskatuta ireki denean interesatua ez bada azterketara bertaratzen, jardunbidea iraungi egin dela erabaki daiteke; hori Herri Administrazioen Araubidearen eta Guztientzako Administrazio Ihardunbidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 92. atalari jarraituz egingo da.

12. atala.– Epeak etetea.

Aurreko atalean aipatutako mediku-azterketa egin ondoren Mediku Epaimahaiaren ustez funtzionarioak berari dagozkion zereginak egiteko ezintasun fisikoa edo ahalmen-urritasun iraunkorra badu, eta Gizarte Segurantzak ez badu erabakirik eman lanerako ezintasun-espedientea ixteko, orduan, Mediku Epaimahaiak ondorengo epeak etetea eska dezake. Eskabide hori egiteko epaimahaiak erabaki arrazoitua hartu beharko du, eta erabaki hori loteslea izango da; bestalde, erabaki hori jardunbidea argitzeko eskumena duen organoari zuzendu beharko dio. Epeak eten egiten badira, interesatuari horren berri eman beharko zaio, bai eta eskumena duen organoari ere; era horretan, hala badagokio, beharrezko ekintzak egingo dira funtzionarioaren ezintasun-espedientearen jardunbidea tramitatzeko, eta, bidezkoa bada, funtzionarioari nahitanahiezko erretiroa emateko.

13. artikulua.– Mediku-epaimahaiaren irizpena.

1.– Udaltzaingoaren kidegoetan, mediku-azterketa egin eta espedienteko agiri guztiak aztertu ondoren, mediku-epaimahaiak irizpena emango du, non argi, zehatz eta era eztabaidaiezinean bere iritzia emango baitu, honako gai hauen gainean:

a) Funtzionarioak bere kategoriari dagozkion zereginak eraginkortasunez betetzeko gutxiegitasun fisiko edo/eta psikiko agerikoa, eta ustez iraunkorra, duen ala ez, eta ezintasunik izanez gero, hori polizia-lanbideko oinarrizko zereginak eraginkortasunez betetzeko oztopo den ala ez.

b) Bigarren jarduerako administrazio-egoerara igarotzea egokia den ala ez.

2.– Ertzaintzan, mediku-epaimahaiak Laneko Medikuntza edo Osasun Mentaleko arloetatik jasotako mediku-txostena baloratuko du, bai eta eskura dituen gainerako agiriak ere, polizia-lanbideko oinarrizko zereginak eraginkortasunez betetzeko oztopo diren ahalmen fisiko edo psikikoen ustezko behin betiko kalterik dagoen zehazteko. Bidezkotzat jotzen badu, interesduna epatuko du epaimahaiak zuzeneko azterketa egin diezaion, betiere 15 egun lehenago; interesduna epaimahaiaren aurrera aurkeztera eta azterketa hori egitera behartuta dago.

Mediku-epaimahaiaren irizpenak, aurreko idatzi-zatian jasotako erabakiez gainera, eginkizunen gaineko txostena bete beharko du, non zehazki honako hauek jasoko baitira:

- Ertzaintzaren kidegoetako funtzionarioak bete behar ez dituen eginkizunak.
- Destinoaren baldintzatzaileak eta, beharrezkoa bada, txandaketaren edo bestelako mugak.

Mediku Epaimahaiak uste badu baliaezintasun handia, ezintasun iraunkor absolutua edo ezintasun iraunkor osoa direla-eta baloratutako lesioak edo mugak funtzionarioaren erretiroa ekar dezaketela polizia-lanbidearen eginkizunak betetzeari dagokionez, argiro eta esanbidez jasoko du egoera hori bere irizpenean, organo eskudunak dagokion ezintasun iraunkorraren aitortpena egin bitartean lanpostuaren egokitzapen funtzionala egin diezaioten kautelaz eta aldi baterako. Funtzionario interesduna behartuta egongo da Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari dagokion ezintasun mailako aitortpena eskatzera.

14. atala.– Entzunaldiko tramiteak.

1.– Mediku Epaimahaiak hartutako erabakiaren berri emango dio instrukzioa daraman organoari; erabakiarekin batera akten eta egindako jarduera guztien kopia emango dizkio. Organo horrek entzunaldia eskainiko dio interesatuari, eta interesatuak hamar eguneko epea izango du bere ustez egokiak diren alegazio, agiri eta ziurtagiri guztiak aurkezteko.

Interesatua ez badago ados epaimahaiak emandako erabakiarekin, eta beste medikuren batek emandako txostenak edo erabakiak aurkezten baditu, instrukzioa daraman organoak Mediku Epaimahaiari helaraziko dizkio horiek guztiak. Epaimahaiak aztertu egingo ditu aurkeztutako agiriak, eta, hala badagokio, beharrezko diren egiaztatze eta azterketak egingo ditu. Ondoren, berretsi egingo du hartutako erabakia edo, bestela, beste erabaki bat emango du.

Instrukzioa daraman organoak egindako guztiaren berri emango dio interesatuari, eta interesatuak hamar eguneko epea izango du bere ustez egokiak diren alegazio, agiri eta ziurtagiri guztiak aurkezteko.

2.– Entzunaldia bukatutakoan instrukzioa daraman organoak aurrera egingo du espedientearen tramitazioarekin horri buruzko erabakia hartzeko.

15. atala.– Erabakia.

1.– Emandako txostena aztertu ondoren, eta kontuan izanda espedienteko agiri guztiak, eskumendun organoak bidezkoa den erabakia hartuko du.

2.– Mediku Epaimahaiak emandako txostenak lotetsi egingo du eskumendun organoa 2. jarduerako egoerara igarotzeari dagokionez. Hala ere, eskumendun organoaren ustez txosten hori baliogabetzeko moduko irregulartasunak egin badira, organo horrek txosten hori berraztertu egin dezake, administrazio jardunbideko arauei jarraituz.

3.– Ertzaintzaren kasuan ebazpena sei hilabeteko epean eman eta jakinarazi beharko da, eta lau hilabeteren buruan Udaltzaingoaren kidegoen kasuan, hasiera ematen zaien egunetik aurrera eta egon daitezkeen bidezko luzapenei kalterik egin gabe, betiere Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Jardunbide Komunari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 42.2 artikuluan zehaztutakoaren arabera.

4.– Ertzaintzan giza baliabideetako gaietan eskumena duen zuzendaritzaren ebazpenak, bigarren jarduerako administrazio-egoerara itzultzea ebatziko duenak, Ertzaintzako funtzionarioak egin behar ez dituen eginkizunen gaineko txostena jasoko du.

BIGARREN SEKZIOA

JARDUNBIDE MOTAK.

16. atala.– Ofizioz hasitako jardunbidea.

1.– Dekretu honetan aipatutako arrazoiengatik 2. jarduerako egoerara igaroarazteko jardunbidea ofizioz hasiko da jardunbide horri hasiera emateko eskumena duen organoak horretarako erabakia hartu duenean; erabaki hori organoak berak bere kabuz hartutakoa izan daiteke edo gorengo organo batek emandako aginduaren ondorio edo beste organo batzuek, arrazoietan oinarrituta, eskatutakoa.

Beti ere, jardunbidea ofizioz hasiko da, jardunbideari hasiera emateko eskumena duen organoak agiri bidez baldin badaki Gizarte Segurantzako Institutu Nazionaleko lurralde zuzendariak funtzionarioak zati baterako ezintasun iraunkorra duela aitortuz erabakia eman duela.

Ofizioz hasiko da, Ertzaintzan giza baliabideetako gaietan eskumena duen zuzendaritzaren ebazpen bidez, baldin eta funtzionarioak ezintasun iraunkor partziala duela aitortzen duen Gizarte Segurantzako Institutu Nazionaleko lurralde zuzendariak emandako ebazpena badago, ezintasun iraunkor partziala aitortzen duen epai judiziala eman bada, edo Prebentzio eta Lan Osasuneko Alorreko Laneko Medikuntza edo Osasun Mentaleko alorrak egindako eskaera arrazoitua badago.

2.– Interesatuari eta Mediku Epaimahaiko idazkariari jardunbidea irekitzeko hartutako erabakiaren berri emango zaie hamar eguneko epean, erabakia hartu den egunetik kontatzen hasita. Idazkariari medikuaren txostenak eta Herrizaingo Sailak edo, hala dagokionean, toki-erakundeak dituen agiri guztiak emango dizkiote; Gizarte Segurantzako Institutu Nazionaleko lurralde zuzendariak erabakirik eman badu, erabaki hori ere emango diote.

Ertzaintzaren kasuan, prozedurari ofizioz hasiera emateko erabakia mediku-epaimahaiko idazkaritzak jakinaraziko dio interesdunari, eta epatu egingo du Laneko Medikuntzako Arloak edo Osasun Mentaleko Arloak ebaluazio mediku-txostena egiteko. Txosten hori interesdunari eta mediku-epaimahaiari bidaliko zaie.

3.– Erabakia emateko zehaztu den epean ez bada erabakirik eman, jardunbidea iraungita dagoela ulertuko da, eta jarduerak artxibatu egingo dira; artxibatze eskabidea bai interesatuak bai erabakia hartzeko eskumena duen organoak egin dezake, eta horretarako epea hogeita hamar egunekoa izango da, erabakia emateko epea bukatu zen egunetik kontatzen hasita. Baina interesatuaren erruz jardunbidea eten egiten bada, erabakia emateko epea ere eten egingo da.

17. artikulua.– Interesdunak eskatuta hasitako prozedura, Udaltzaingoaren kidegoetan.

1.– Interesatuak bigarren jarduerako egoerara igarotzeko jardunbidea hasteko eskabidea egin dezake, eta eskabide hori II. eranskinen dagoen eredu ofizialaren bidez egin beharko du. Eskabidearekin batera eskabidea egiteko dituen arrazoiak egiaztatze behar dituen agiri guztiak aurkeztu beharko ditu.

2.– Gizarte Segurantzak lanerako ezintasuna adierazteko espedienteari buruzko erabakia hartu badu, erabaki horren kopia ere aurkeztu beharko du eskabidearekin batera.

Horrela ez bada, Gizarte Segurantzaren lanerako ezintasuna adierazteko espedienteari hasiera eman zaiola egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko du. Era berean, horrekin batera medikuaren jatorrizko txostena edo horren kopia egiaztatua aurkeztu beharko du; txosten hori enpresako medikuak egindakoa edo interesatuari dagokion Osasun Zerbitzu Publikoak egindakoa izango

da, edo, hala badagokio, Gizarte Segurantzako Laneko Istripu eta Gaixotasunetarako Mutuako mediku-zerbitzuak egindakoa.

Era berean, beste mediku batzuek egindako jatorrizko txostenak edo horien kopia egiaztatuak ere aurkez ditzake.

3.– Eskumena duen organoak ez badu erabakirik ematen dekretu honetako 15.3. atalean zehaztutako epean, interesatuak bere eskabidea ez dela onartu ulertu beharko du.

17 bis artikulua.– Interesdunak eskatuta hasitako prozedura, Ertzaintzaren kidegoetan.

1.– Bigarren jarduerako administrazio-egoerara igartzeko eskaera egiteak esan nahi du interesdunak egoera hori nahi eta onartzen duela, eta hori eskabidean bertan edo eskabideari erantsitako agirien bidez adieraziko da; nahi eta onartze horiek honako gai hauei buruzkoak izango dira:

a) Mediku-epaimahaiari baimena ematea, polizia-lanbidearen eginkizunak betetzeko funtzionarioak dituen kalte fisiko zein psikikoen maila egiaztatzeko beharrezkoak diren datuen gaineko informazio klinikoa osasun-zerbitzuei eskatzeko.

b) Hirurogei urterekin borondatezko erretiroa hartzeko konpromisoa, edo, kasua balitz, berrogeita hemeretzi urterekin, betiere Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren berrogeita zazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera. Konpromiso hori atzeratu ahalko da, baldin eta erretiro aurreratua hartzeko adina betetzen denean, oinarri arautzailean xedatutako pentsioa ehuneko ehunean jasotzeko baldintzak betetzen ez badira.

Eskaera egiteko, idatzi-zati honetan ezarritako zehaztasunak jasotzen dituen eredu ofizial bat ezarriko du administrazioak.

2.– Interesdunak eskatuta, Ertzaintzan bigarren jarduerako administrazio-egoerara igartzeko eskabidea aurkeztuz gero, mediku-epaimahaiko idazkariak pertsona interesduna epatuko du, Ertzaintzan giza baliabideen eskumena duen zuzendaritzako Prebentzio eta Lan Osasuneko Alorreko Laneko Medikuntzaren edo Osasun Mentaleko alorreko medikuak ebaluazio-txostena egiteko. Interesdunak honako agiri hauek aurkeztu ahalko ditu hitzordu horretan:

a) Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren ebazpena, ezintasun iraunkorraren aitortze-nari buruzkoa, eta Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren proposamenaren irizpena eta baloraziotxostena.

b) Ezintasun iraunkor partziala aitortzen duen epaia.

c) Eguneratutako txosten medikoak edo psikologikoak.

d) Bere kasua baloratzeko bidezko jotzen duen beste edozein agiri.

3.– Medikuek egindako ebaluazio-txostena mediku-epaimahaiari bidaliko zaio, azter dezan, interesdunak aurkeztutako gainerako agiriekin batera.

4.– 14. artikuluan aurreikusitako entzunaldiaren izapidea amaitutzat emango da, baldin eta artikulua horretan aurreikusitako epeetan interesdunak desadostasunik ez badu adierazten espresuki, edo epea amaitu aurretik alegazioak egiteko edo agiri berriak aurkezteko asmorik ez badu adierazten.

18. atala.– Gaitasun psikiko edo/eta fisikoen azterketa.

1.– Bigarren jarduerako egoeran gutxiegitasun psikiko edo fisikoen ondorioz daudenei, gutxiegitasun horren izaeraren arabera, enpresako mediku-zerbitzuak aldiro-aldiro azterketa egin diezaieke.

2.– Gutxiegitasun psikiko edo/eta fisikoaren ondorioz bigarren egoerako jarduerara igarotzea eragin duten inguruabarrak aldatu egin badira –gutxiegitasunak txarrera edo hobera egin badu–, bai ofizioz bai interesatuak hala eskatuta, berriz aztertuko da egoera hori, eta horretarako jardunbidea ahalmen psikiko edo/eta fisikoen ondorioz bigarren jarduerako egoerara igarotzeko zehaztutakoa izango da.

XEDAPEN GEHIGARRIETATIK BIGARRENA

Giza Baliabideen Zuzendaritzak behar diren neurriak hartuko ditu zereginak egiteko beharrezko ahalmen fisiko edo/eta psikikoen gutxitze agerikoa, eta ustez iraunkorra, duten funtzionarioen osasun-egoeraren kontrola eta jarraipena egin dezan enpresako mediku-zerbitzuak.

XEDAPEN GEHIGARRIETATIK HIRUGARRENA

Dekretu honetan zehaztutakoari jarraituz, Mediku Epaimahaiak osatzeko xedez tokiko erakundeek laguntza eska diezaizkete Herrizaingo Sailari.

XEDAPEN GEHIGARRIETATIK LAUGARRENA

Mediku Epaimahaiko kideen bertaratzea dela-eta sortutako kalte-ordainak arlo horretan indarrean dagoen araudiaren arabekoak izango dira.

XEDAPEN GEHIGARRIETATIK BOSGARRENA

1.– Euskal Herriko Polizi Kidegoen disziplinazko araudiko 10. ataleko 8. idazatian (maiatzaren 3ko 170/1994 Dekretuaren bidez onartua; 123. EEAA, ekainaren 29koa) honakoa zehaztu zen:

«8) 2. jarduerako egoerara igarotzeko jardunbideetan Mediku Epaimahaiak egindako deira ez agertzea, horretarako ziurtagiririk izan gabe.»

2.– Euskal Herriko Polizi Kidegoen disziplinazko araudiko (maiatzaren 3ko 170/1994 Dekretuaren bidez onartua; 123. EEAA, ekainaren 29koa) gaur egungo 10. ataleko 8. idazatia, aurrerantzean, 10. ataleko 9. idazatia izango da.

ALDIBATERAKO XEDAPENA

Ertzaintzako funtzionarioen lanpostuen zerrenda onartu bitartean, dekretu honetan zehaztutako jardunbidearen bidez 2. jarduerako egoerara igarotzen diren Ertzaintzako funtzionarioek destitututa dauden atalean jarraituko dute eta destinatu zaizkien zereginak egingo dituzte, Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legeko 88.3. atalean zehaztutakoari jarraituz.

INDARGABETZE XEDAPENA

Indargabetuta geratuko da Euskal Autonomi Erkidegoko Poliziaren Araudiko (1982ko ekainaren 15ean Segurtasun Batzordeak onartutakoa) II. idazpuruko II. atalburuko 3. sekzioa, baita dekretu honetan zehaztutakoarekin bat ez datozen maila bereko edo txikiagoko arau guztiak ere.

AZKEN XEDAPENAK

1.– Baimena emango zaio Herrizaingo sailburuari dekretu honetan zehaztutakoa garatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

2.– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1998ko urtarrilaren 27an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Herrizaingo sailburua,
JUAN MARÍA ATUTXA MENDIOLA.

I. ERANSKINA

BIGARREN JARDUERA ARAUTZEKO EZINTASUN MEDIKOEN TAULA

Atal orokorrak.

1.– Gaixotasunak, sindromeak eta prozesu patologiko fisiko edo psikikoak izatea, Mediku Epaimahaiaren iritziz jarduneko zerbitzuan izatea eragozten diotenak, eta bere kategoriako funtsezko eginbeharrak betetzeko muga funtzional nabarmenik eta ustez behin betikorik ez dakarkiotenak, baldin eta behin betiko ezintasunagatik dagozkion funtzioak betetzeko derrigorrezko jubilaziorako arrazoi ez badira.

2.– Gaixotasun eta lesio batzuen ezaugarri bereziak direla eta, Mediku Epaimahaiak epe jakin baterako balioa izango duten irizpenak egin ahal izango ditu, horrela, enpresako zerbitzu medikoak aldi-aldi azterketa medikoak egin beharko dizkio interesatuari eta interesatuak derrigorrez joan beharko du azterketok egitera.

3.– Mediku Epaimahaiak ezintasun medikoen taula hau kategorია profesional bakoitzaren eskakizun medikoen eta lan eskakizunen arabera aplikatuko du.

Ikusmena.

4.– Ikusmenaren zorrotasuna modu nabarmen eta iraunkorrean gutxitzea zuzenketarekin, baldin eta 6/10 baino txikiagoa ez bada ondoen duen begian eta 5/10 bestean.

5.– Ikus-eremua modu nabarmen eta iraunkorrean gutxitzea, baldin eta jarduneko zerbitzuan izatea eragozten badio, baina bere kategoriako funtsezko eginbehar polizialak betetzeko mugarik ez badakarkio.

6.– Beste edozein alterazio oftalmologiko, baldin eta Mediku Epaimahaiaren iritziz jarduneko zerbitzuan izatea eragozten badio, baina bere kategoriako funtsezko eginbehar polizialak betetzeko mugarik ez badakarkio.

Otorrinolaringologia.

7.– Hipoakusia, aparatu zuzentzailearen bidez belarri bietan guztira %35 baino gehiago ez badu galdu honako formula erabiliz:

$$\text{Belarri batean galdutakoa \%} = [(g500+g1000+g2000+g3000) / 4] - 25 \times 1,5$$

(g= galera dezibetan)

Galera globala kalkulatzeko %tan = [(ondoen dagoen belarran galdutakoa x 5) + (txartoan dagoen belarran galdutakoa)] / 6

8.– Sindrome zorbiagarri iraunkorra eta modu objektiboan hartzeko modukoa, baldin eta Mediku Epaimahaiaren iritziz jarduneko zerbitzuan izatea eragozten badio, baina bere kategoriako funtsezko eginbehar polizialak betetzeko eragozpenik ez badio sortzen.

9.– Edozein alterazio otorrinolaringologiko, baldin eta Mediku Epaimahaiaren iritziz jarduneko zerbitzuan izatea eragozten badio, baina bere kategoriako funtsezko eginbehar polizialak betetzeko eragozpenik ez badakarkio.

Nerbio-sistema.

10.– Defizit iraunkorra funtzio motorean edota sentimenean, baldin eta Mediku Epaimahaiaren iritziz jarduneko zerbitzuan izatea eragozten badio, baina bere kategoriako funtsezko eginbehar polizialak betetzeko eragozpenik ez badakarkio.

11.– Nerbio-sistemaren gaixotasunak, alterazioak, sindromeak, lesioak, prozesu patologikoak edo lesioak, baldin eta Mediku Epaimahaiaren iritziz jarduneko zerbitzuan izatea eragozten badio, baina bere kategoriako funtsezko eginbehar polizialak betetzeko eragozpenik ez badakarkio.

Lokomozio aparatua.

12.– Lokomozio aparatuen gaixotasunak edo lesioak, baldin eta Mediku Epaimahaiaren iritziz jarduneko zerbitzuan izatea eragozten badio, baina bere kategoriako funtsezko eginbehar polizialak betetzeko eragozpenik ez badakarkio.

Sistema kardiobaskularra.

13.– Tratamendu medikoa behar duen hipertentsio arteriala, baldin eta Mediku Epaimahaiaren iritziz jarduneko zerbitzuan izatea eragozten badio, baina bere kategoriako funtsezko eginbehar polizialak betetzeko eragozpenik ez badakarkio.

14.– Bihotzeko gaixotasun iskemikoak, baldin eta Mediku Epaimahaiaren iritziz jarduneko zerbitzuan izatea eragozten badio, baina bere kategoriako funtsezko eginbehar polizialak betetzeko eragozpenik ez badakarkio.

15.– Gaixotasun kardiozirkulatorioak, baldin eta Mediku Epaimahaiaren iritziz jarduneko zerbitzuan izatea eragozten badio, baina bere kategoriako funtsezko eginbehar polizialak betetzeko eragozpenik ez badakarkio.

Arnas sistema.

16.– Arnas gaixotasunak eta biriketako erresekzioak, baldin eta Mediku Epaimahaiaren iritziz jarduneko zerbitzuan izatea eragozten badio, baina bere kategoriako funtsezko eginbehar polizialak betetzeko eragozpenik ez badakarkio.

Aparatu genital-urinarioa.

17.– Giltzurrun-transplanteak.

18.– Gaixotasun genital-urinarioak, baldin eta Mediku Epaimahaiaren iritziz jarduneko zerbitzuan izatea eragozten badio, baina bere kategoriako funtsezko eginbehar polizialak betetzeko eragozpenik ez badakarkio.

Liseri-aparatua.

19.– Hepatopatiak hesteetako hanturazko gaixotasun kronikoak, liseri-hodiko edozein ataleko erresekzioak eta liseri-aparatuko beste edozein prozesu patologiko, baldin eta Mediku Epaimahaiaren iritziz jarduneko zerbitzuan izatea eragozten badio, baina bere kategoriako funtsezko eginbehar polizialak betetzeko eragozpenik ez badakarkio.

Dermatologia.

20.– Alterazio dermatologikoak, baldin eta Mediku Epaimahaiaren iritziz jarduneko zerbitzuan izatea eragozten badio, baina bere kategoriako funtsezko eginbehar polizialak betetzeko eragozpenik ez badakarkio.

Sistema hematikoa.

21.– Odoleko, organo hematopoietikoetako eta organo linfatikoetako gaixotasun kronikoak edo eboluzio progresibokoak, baldin eta Mediku Epaimahaiaren iritziz jarduneko zerbitzuan izatea eragozten badio, baina bere kategoriako funtsezko eginbehar polizialak betetzeko eragozpenik ez badakarkio.

Beste patologia batzuk.

22.– Jatorri endokrinoko gaixotasunak, prozesu neoplasikoak eta infekziosoak eta beste edozein prozesu patologiko, baldin eta Mediku Epaimahaiaren iritziz jarduneko zerbitzuan izatea eragozten badio, baina bere kategoriako funtsezko eginbehar polizialak betetzeko eragozpenik ez badakarkio.